



AITA SANTUA

1. Kristoren ordekoa

Eliza gizarte bat da, gizon-emakumez egindako giza-talde bat. Ez, ostera, besteen antzekoa. Beste gizarteetan, agintza edo autoridadea, jatorriz, taldean edo errian aurkitzen da, eta erriak aukeratu daitezke nai dituan agintari edo ordekoak. Elizan, barriz, gauzak eztagoz olan. Eliza Kristoren inguruan asi zan, Kristoren inguruan batu ziran apostoluak eta Kristogandik artu eban Elizak bere asiera ta izaera. Eliza Kristok jaso eban. Eliz-agintariak ez dira, ba, eliz-taldearen ordekoak, Kristoren ordekoak baiño. Eta eurak dauken autoridadea Kristogandik jatorke, ez erri edo taldetik. Elizan autoridadea goitik-berakoa da eta ez betik-gorakoa, bestetariko giza-sailletan jazoten dan lez. Eliz-guztiko agintza, beraz, Kristoren ordez dagokio Aita Santuari.

Baiña, ezta ori bakarrik. Aita Santuaren ordekotasunak sustrai sakonagoak ditu. Jaungoiko Semea gizon egin zanetik, gizatasunak zer-ikusi andia dauko kristau erlijioan. Berak gura izan baeban, Jaungoikoa jaungoiko itxuraz agertu eitekigun gizonori, indarrez eta aunditasunez inguraturik, zeruan dagoan lez. Baiña Jaungoikoak ume txiki batean agiri gura izan eban, gizatasunez jantzita, argal eta bear-tsu. Zergaitik? Eztakigu: Berak olan gura izan ebalako. Baiña, dana dala, orixe ezin dogu ukatu: Jaungoikoak aragiaren argaltasuna artu ebalako, gu gizonok errezago eroateko Beragana.

Orregaitik itxi deusku bere ordekatat gizon bat: Aita Santua, gure lez argala eta gure lez indarbakoa.

2. Obispu Nagusia

Obispu danen artean, Aita Santua da nagusiena. Aita Santua da Eliz guztiko jefia. Inor-be eztago Elizan bera baiño gorago eta danok gagoz bere azpian, bere aginpean. Kristok orrelan jaso eban bere Eliza eta inok ezin aldatu daike ori.

Istorian zear izan dira, barriz, okertasunak. Geienak, era bikoak. Batak, Aita Santuaren benetako agintza nagusia ezagutu gura ez dabenak, edozein obispu batek baiño autoridade andiagorik ez daukola erakutsiaz; eta besteak, Eliz-Batzarrak Aita Santuak baiño autoridade geiago daukola esaten dabenak.

Aita Santua, benetan, obispu bat da, eta obispu danez, ez dauko beste obispuak baiño eskubide geiago. Baiña, Aita Santua ori baiño geiago da. Orixo: Aita Santua, eliz guztiko agintaria ta jefia, benetako agintaria, agintari bakarra, agintza osoko agintaria. Obispu batek eliz-barrutian daukon autoridadea, dauko Aita Santuak eliz guztian. Aita Santuak ezin dau jaurti Kristok jaso ebana, baiña beste dana bere eskuetan dago, eta berak gura dauana egin daike.

3. Eliz-Batzar Nagusia ta Aita Santua

Obispuak, euren eliz-barrutiko agintzaren gaiñetik, ba-dauke beste agintza bat be, Eliz guztiko agintza. Noiz edo zelan? Batuta dagozanean, Aita Santuaren araberean.

Eliz guztiko agintza, esan dogun lez, lenen-lenengo Aita Santuak dauko, baiña obispu-sail osoak be agintza orixe dauko, Aita Santua erako danean. Obispuak, ba, danak alkartuta —edo munduan zear (magisterio ordinario) edo Eliz-Batzar Nagusian (magisterio solemne) —zeozer erakusten deuskuenean, siñistu edo bete bear dogu derrigor. Ez dira orduan teologo batzuk, gure agintariak eta artzaiñak baiño.

Baiña erakuste orrek beti eroan bear dabe Aita Santuaren bai-tza. Bera da beti gure Artzai nagusia.

AURKIBIDEA

| | |
|-------------------------|---|
| AITA SANTUA | 1 |
| ELEIZA ZER DA? | 2 |
| ETA KONZILIUUA? | 2 |
| PASTORAL BAT | 3 |
| DANOK KONZILIUAN | 5 |
| OBISPUEK | 6 |
| KONZILIUAREN PROLEMAK | 7 |
| MUNDUA BERBETAN | 8 |

“VATIKANO-KO II-N ELEIZ-BATZARRAREN JARRAIA GURE AGINTZAKO EGIN-BEARRIK ANDIENA IZANGO DA. BERORI IZANGO DA IZAN BE GURE LENENGO ARDUREA, MUNDU GUZTIAK IKUSI DAIAN JESUS-EREN EBAN-JELIOAN DAGOLA AIN GOGOKO DOGUN SALBASINUA” Paulo VI.

ANAITASUNA

IX URTEA N.º 105
Dep. Legal SS. 1092-1959
Suplemento de la hoja
Anaitasuna de Guipúzcoa
IRAILLA-URRIA (9-10) 1963

ELEIZA, ZER DA?

1.—Mundu onetako soziedadeak.

Mundu onetan benetako soziedadeak, soziedade osoak, bi dira:

- a) Eleizak formatuten daben soziedadea
- b) Estaduak formatuten daben soziedadea.

Zer esan gura dau benetako soziedadeak, soziedade osoak? Ze gauza edo ze kualidade euki bear ditu soziedade batek benetako soziedadea deituteko? Kualidade bi: a) Joera edo azken bat b) Bideak azken orretara elduteko.



eta Konziliua?

Iraillaren 29-an asi zan Vatikanoko II-ren bigarren zatia. Joan dan aspaldi onetan papel eta mingain guztiak dabiltz kontziliua dala ta eztala berbetan. Ondo dago! Baiña, ez da naiko miña zoli eukitea, ta Kontziliua dala ta eztala nobedadeen atzetik ibiltea. Lotsagarria izango litzake benetan, ekin eta ekin ibilli Kontziliuatzaz eta kontziliu bat zer dan eta zetarako dan ez jakitea. Famili baten —eta Eleiza be famili bat da— zeozer gertatuten danean, familiko guztiak egoten dira preokupatuta. Bardin izan bear dau kristiñauok formatuten dogun familian be. Kristiñau guztiok preokupatu bear gara famili orretan gertatuten diran gauzakaz be.

Kontziliu ekumenikua (ekumenikuak mundu guztikoa esan gura dau) auxe dozu: "Eleiza guztiko gora-berak eta problemak diskutidu ta epaituteko, Aita Santuak edo Aita Santuaren bidaliak mundu guztiko obispu ta beste eleiz-gizon askorekin eukiten daben batzarra". Batzar onek bear bearrekoa dau: a) Aita Santuak batutea; b) Aita Santuaren edo Aita Santuak bialdutako eleiz-gizonen baten aurrean egitea. Edozein obispuk ezin dau batzar nagusirik batu.

Estaduak bere joera dauko: gizartearen bizimodua zaindu. Eleizak bere joera dauko; joera ori mundu onetako bizitzaren ganetik doa; espirituala da. Joema espirituala eukiteak, oster, ez dau esan gura ELEIZA aingeruak zainduteko eta aingeruak bizitzeko danik, ez; Eleizak mundu onetan formatuten dauan soziedadea, gizonak salbatuteko ta gizonakaz formatua da. Kristo-k, bere Soziedadeari asiera emoteko, ez ebazan aingeruak aukeratu, gizonak, azur eta aragiz jantzitako gizonak baiño. Jakin daigun bein betiko emakumeengandik jaioriko gizonak dirala Eleiza zaindu eta formatuten daben atalak.

2.—Soziedade batek agintariak eta menpekoak daukoz.

Kristo-k, bere Soziedadea formatu baiño len, direktore edo obispuak aukeratu ebazan bere jarraitzaileen artean; onek Apostoluak izan ziran. Apostoluen artean, nagusi bat aukeratu eban: Pedro.

Kristo-k ez eban fundatu bere ELEIZA —goratxuago esan dogun lez— aingeruentzat, gizonentzat baiño. Gizonak izan bear eben soziedade orren nagusiak eta menpekoak. Aurrerantzean, gizonen tartetik, —eta barriro diñot!— azur eta aragizko gizonen artetik aukeratu bear ko ziran soziedade orren nagusi ta nagusi orren laguntzaileak. Soziedade orren barruan danak ez eben eukiko erresponsabilidade bardiña; erresponsabilidadea soziedade orren atal guztiak euki bear ko eben, baiña ez bardiña.

3.—Eleizaren Jerarkia.

Eleizak nagusi bat dauko: Aita Santua. Aita Santuaren urrengoak Obispuak dira. Onen urrengoak, apaizak.

Aita Santua edozein obisporen gañetik dago; berak aukeratu dau edozein tokitako obispuak. Obispu ta obispaduko jente guztia bere menpean dagoz. Obispuak Aita Santuaren laguntzaileak dira; baiña alan da guztiz be, Obispu bakoitzak bere ofiziuarengandik iator kon eskubideagaz gobernaten dau bere obispadua. Obispu bakoitza bere obispaduan nagusi da. Erromako Obispua, Aita Santua, Nagusi da Erroman eta mundu guztiko obispadu guztietan. Arsipreste, parroko eta beste apaiz guztiak obispaduko obispuaren menpean dagoz; obispuaren laguntzaileak dira. Erlejiuak be, gauza askotarako, obispuaren baimena bear dabe.

Eleiz-gizon eta erlijiosuen urrengo, beste kristiñau guztiak datoz Eleizaren soziedadean.

Auxe da, bada, Kristo-ren soziedadea. Askotan entzun izan dogu kristiñau guztiok "Gorputz bat", "Gorputz Mistiku bat" formatuten dogula; egia da, ta egi ederra; baiña, egia da baita Kristo-k soziedade bat, begiakaz ikusten dan soziedade bat fundatu ebala mundu onetan, eta —barriro esanda— orren atalak "azur eta aragizko" gizon eta emakumeak dira. Ta... jakina, aragizkoak garanezkeroz, bai golko ta bai beko maillakoak, aragizko miseriakaz jantzita gagoz.

Kontun artu daigun, ta ez gaitezan lotsatu argaltasunen bat ikusten dogunean; ez dauka ba bildurrik Bataioan artutako Fedek, goiko maillakoen edo beko maillakoen argaltasunen bat dala ta. Gure fedek ba-ditu sustrai eta oiñarri sendoagoak.

Eleiza Amak kontziliu asko eta modu askotakoak batu ditu. Ogei kontziliu nagusi izan dira danetara. Lenengoa, Nicea-koa (325). Azkenengoa, Vaticano 1^o deritzaiona (1869-rrenean batu eban Pio IX-garrenak); amaitu barik gelditu zan. Ospatuten gagozan Kontziliua, Vatikanoko II, ogeta bat-garrena dogu.

Kontziliua ezta mundu guztiko obispueri bieja eder bat emoteko erea, ez; zeozer geiagorako da. Kondairak dirauskunez, Kontziliuak sarri egin dira erlijio Katolikuaren barruan agertu ziran erejen kontra joateko. Baiña Kontziliuak ba-dabe beste elburu bat, beste joera bat be: "Gizaldi bakoitzak daroazen problemari arpegia emotea be kontziliuen biarra da. Problema onek izan dai-tekez: erlijioaren problemak, gizartearen problemak; t. a. Kontziliu nagusi baten bierrik aundieta ta gaxena auxe da: gizaldi bakoitzeko problemari bear dan moduan arpegia emotea."

Gaurkoak be ba-dauko arpegia nori ta zeri emon. Otoitz bero bat egin daigun ospatuten gagozan Kontziliuak ondo urten daian. Kontziliua danentzat da; ez da Aita Santuarentzat bakarrik!...

KONZILIUUA ZER DAN

"Pentekostes barria" deitu eutson Aita Santuak Konziliu Ekumenikuari. Eta zer da, egitan, Konziliua, Eleizarengan misteriuatsu datorren Kristoren Espiritua izan ezik?

Jerusalem-en lez, —aurreko ogei konziliu danetan izan dan lez—, "Espiritu Santuak, Eleizea gobernatzeko, autatuta daukozanak" batzartuko dira, fedea, oiturak eta disziplinearengain, bear diran neurriak artuteko. Erabiliko diran gaiak desberdiniak izango badira be, sakonean, batzar nagusi onek goitar eginkizun bateri jarraituten deuto: Apostolueri esandako berba areeri: "Espiritu Santuak erakutsiko deusue, nik irakatsitako dan-dana".

Pedro donearen urrengokoarenpean, Aita Santuarenpean, batuko dira Apostoluen ordekoak; Jaunak berak irakatsi euskuna geiago sakondu, berba argiakaz esan, aurrera bizirik eroan eta bear dan moduan gorde ta beteteko.

Beste batzuek be Konziliuan esku-arte daikee ta euren izate, nortasan eta jakituria gaitik artuko dabe artu eskua;

liuari, argia ta indarra goitik datozelako; olan ba, konziliua ezta, obispuetan errepresentata dagozan kristiñauen batzar santu bat. Abots bizi ta gogorrek entzun dira lurralde batzuetan, "katolikuen ustearen" deretxuz berba bada-etzpadaoak egina. Laiku batzuk, euren biarra ain ondo entenitu barik, ez ete dagoz pentsaten euren obispuetak berbaldi bat armatea konbenidu dala?

Baiña gotzaiñetan kristiñauen errepresentante ta delegadu batzuk bakarrik ikustea, gotzaiñeri berezko deretxua ukatutea dala esan bear. Gaur baiño katoliku zentzun aundiagoagaz deitu jake obispueri, antziña baten, "aitak".

Nagusia izatea ta indarra eukitea, ez jatorke eureri kristiñauengandik, Aita Santuaren bitartez, Kristo Gure Jaungandik baño: "Neure Aitak neu bialdu nauan lez, Neuk be bialduten zaituedaz..."

Ezta esan gura onek, gotzaiñek ezta-tabela kristiñau erria errepresentaten, ze, Antiokia-ko Iñazio deunak argi esan euskun: Obispua dagon tokian, antxe dago Eleizea", eta oraindiño sakonago, Zipriano doneak: "Obispu Eleizeagan dago, eta Eleizea, obispuarengan".

agertu euskun: "Konziliuak, Eleizea aurrera ariñago eroateko, gizonen aldetik datozen estroposuak kenduaz, bere edertasun guztia erakutsiko dau eta orduan esango leuskioe protestante, ortodoxu ta aldentuta dagozan guztieri: "Ikusi, anaiak, au da Kristoren Eleizea. Guk leialak izateko alegiñak egiten doguz, eta Eleizea Jaunak gura dauan modukoa beti izan daitela erregulutun deusagu Berari".

Orduan, Konziliuak eztauko auxe baiño beste nairik: Eleizaren benetako arpegia ikustera emon gaurko munduari. Eleizeak, jaunaren Ebanjeliua gizon guztienganañño zabaldu bearretik jaiola, Jaungoikoaren "epifania" bat izan gura dau, naturalismu ta jaungoikobagekeriaren denpora oneetan: Jaungoikoa ezagutu ta maitatua izan daian.

Aurtengo jorraiaren 28-an, munduko gozain guztieri emondako apostolutar Kostituziñuan Aita Santua Kristoren presentiarengain mintzatuten da; zelan Kristok jarraituten dauan bere eginkizuna emen lurrean. Prezenti auxe —diño Aita Santuak— "probatuko dau Konziliuak argiro: bere biarra, Eleizaren estrukturak gaurko exijentziak beteteko moduan eta eran jarri. Bertan examiñatu ta idatziko diran legeak ezta-be gura au baiño: gizonak, Kristo, gero ta geiago ezagutu ta maitatu dagiela eta Bera antzbidetu gero ta su aundiagoagaz. Bera izan bear da errege bakarra. Konziliuaren ospatuteagandik, eta, Jaungoikoari eskerrak, emendik etorriko dan espirituen barrizteak, eztauko beste jomugarik".

Eleizea barritu egingo ete da? Ez, itaunkera onek gaurko dotriña txarrakaz batutea esan gura badau. Eta, bai, betiko dotriña ta bitzta kristiñauak gaurko berbetan ipintea esan gura badau.

ERREBOLUZINU BATEN BEGIRA

Eztira faltatu mundukerizko begiradakaz Konziliua begiratuta, erreboluziñu baten itxaropenean egon diranak be. Mundukerizko itxaropena, bai, ze itxaropen ori ezta ezelan be kristiñauena; siñismena falta jako. Eta Jaunak berak esan eban: "Ni barik, eztozue al izango ezer". Siñismen bako itxaropen onek, eztaki Eleizaren izatearen barri. Eleizea ezin daiteke beste-bateratu, bere izatea alde batera itxi. Istoriaren prozesu guztian, ezta egiten bere nortasuna erakutsi baiño. Denpora batzuetako berba ta formakaz jantziten da, baiña au, denpora orreetako jenteak obeto ezagutu ta enteniduteko azal utsa baiño ezta; olan daroa leku eta denporan, eroan bear dauan betiko fede ta grazia. Beragan mobimentu bi dagoz, "aragitu ta desaragitu" deitu geinkioe: bata, denporearen une bakoitzean izateko, ta, bestea, denporeagaz ez nastateko. Mobimentu onen bizitzaren sustrai-sustrai erro biak, egia ta arteztasuna dira. Eleizea denpora guztietakoa da. Danengana igaroten dau Kristoren misteriuak, —liturjiak abestuten dauan lez—, atsokoa, gaurkoa eta biarkoa dan misteriuak. Berari eskerrak, Kristo, Istoria guztian da.

Eta gu gaizkatuteko —salbatuteko— bizi da Istorian. Bakarrik berak emoten deutso sentidua Istoriari. Baiña ez, siñestuten eztaben batzuek erretuta pentsaten daben moduan, munduarenganatuete, mundua Beraganatuteko baiño. Gaurko baliotasunetzat, Eleiza Amak, "konpreñsiñu" ta "irigikera" berbak erabilten dauzanean, ezta juzgatu bear Eleizea; Eleizeak, Kristok, juztatuten dauz gaurko baliotasun orreek.

ELEIZAREN MISTERIUA

Eleizea ezta izango egundo konpreñdua kanpotik begiratuten deutsoenagaitik. Fedepaen dagon misteriaua da Eleizea. Bai, misteriaua, Kristo berberaren mis-

Vaticano II Konziliuaz Portugal-eko Gozzaiñek idatzi daben Pastorala

baiña, berez, —Eleizatik urrundata dagozanak kenduta—, Apostoluen urrengoeri bakarrik dagokie konziliuaren ardurea.

Ospatuko dan konziliua, bene-benetan izango da Ekumenikoa, mundu guztikoa, katolikua, ze benetako Eleizaren, Kristoren Eleizaren gozaiñek —obispuak—, batuko dauz.

Konziliu Ekumenikua, ezta ez batabetengandik aldentuta dagozan kristiñauen batzarra; munduaren begientzako, gozaiñen batzar au, Eleiza bakarra, santua, apostolikua ta katolikuaren biarra ta aktibidadea aurrera eroango dabena, izango da.

Ia bi milla ta bosteun obispu —goztain— batuko dira "anima ta biotz bakar bategaz". Kristoren Eleizeak ezta emon sekula iñoiz olako erakuspenik beren aunditasun eta batasunaren alde.

KONZILIUUA TA "KATOLIKUEN USTEA".

Gauza oneetan nagusi dan batek "goitik-berako batzarra" deitu eutson konzi-

Artzaintza, edo Paulo daunak diñoan lez: "Eleizeen ardurea", obispuak —artzaiñak diran ezkeroztik— espiritu ta biotzean eroan bear dabe; eta euren pentsamentu ta maitetasun guztiak, kristiñau erriak osotuten dauan Eleizaren-tzat.

Gaurko berbetan esateko, ardura onek, obispua, gero ta geiago erriarenganatu bear dau, obeto ezagutu ta lagunduteko.

Ejenplu ederra emon deusku Aita Santuak, Eleiza guztiko gozaiñeri gaurko munduaren beartasun, aspiraziñu ta egoeraz, konziliua obeto preparatuteko, itaundutan. Enkuesta onen erantzunak bederatzi milla dokumentuetan batu dira, amabost liburu lodietan.

KONZILIUAREN NAIK

Konziliuan ain zati aundia artu eban Tardini Kardenalak —Aita Santuaren Estaduko sekretariaua izanikoak— aparteko autoridadeagaz esan eban: "Eleizaren barruko gertakizuna da". Konziliuaren naiak, Eleizarenak dira. Bere esakera artezagaz 1959-ko diskursuan, Aita Santuak, auxe

teriu, ze Bossuet-ek sarri diñonez, bera da "Kristo jarraitua ta zabaldua". Bera ezagutu ta maitatuteko, barrura sartuten ixten dauan argia berak botaten dau: fedearen doia da-ta.

Orregaitik, Konziliua bera be, ezin da izango konprenidua Eleizatik kanpora. Espiritu Santuaren presentzi ta biarra, Konziliuaren aurretik, bertan eta gero, ezta ikusia izango, obispu katolikuen batzar aundi-eder bat baiño ikusten eztabenagaitik. Gertatuko baita, jokera ta ondore batzuekatz kanpoko lagunak nora barik jarritea.

Espiritu Santuaren influentziak animen barruak eragingo dauz, ikusiez in eta ixillean.

Alperrikoa izango da mundua ta Eleizea bategiteko indarrak botatea. Jaunak ez eban gura munduagaitik otoiñzik egin. Eta Juan apostolu doneak baieztu eban ze: "Mundua dan-dana txarraren menpean egoala".

Simeon zarrak igarri eban Kristo "Kontradiziñoeko seiñalea" izango zala; auxe gertatuten Eleizagaz be. Onek, beti erregutuko deutoz —Paulo deunak diñon lez—: "judutarrentzako eskandalua ta jentiltzentzat zorakeria" dan Kristo gurutziñtatuari.

Apostoluak larguro idatzi dau "zelan Jaungoikoaren zorakeria dana, gizonen jakituria baiño urrunago doan, eta Jaungoikoaren azkatasuna, gizonena baiño indartsuagoa danarengain". Olan ikusten da, Eleizak, Kristok lez garaituten dakie-la. Aska baten jaio ta kurtzean garaille urten "mundu onetako printzipea" garaituaz.

Guzurrezko nai eta desirak, —arrokeriaren, indarkeriaren, pasiñuaren, lizunke-riaren, diru zalekeriaren eta agindukeria-renak—, mendiko berbalidiko zorianagaitik juzgatuak izango dira munduaren akabukaeran.

Ez ete dau idazten Juan apostolu doneak lerro auxe, desafiñu bat bailitzan: "Fedea da mundua garaituten dauan garaillea"?

FEDEAREN EZAUGARRIA, ELEIZEA

Eleizaren misteriuaren fedearen goitar argiagaz ezpagara sartuten, ber-bera biur-tuko jaku tentaziñuen iturri.

Kristo gurutziltzatu, aintzaz beteriko Mesias baten itxaropenean egozan juduta-rrantzako, eskandalua izan zan. Eta tenta-ziñu auxe eztabe eukiko "Eleizaren mixe-riak" deituten diran aurrean siñismen epe-leko kristiñauak?

Zertzuk dira Eleizaren kontra botaten diran eskandalu, mixeri eta abusuak, beste aldetik Eleizak kondenatu ta une dan-danetan erreparatuten dabezanak, kristiñau pekatarien, mezadun eta mezabakoen, peka-tuak izan ezik? Ez eban deklaratu Jaunak ezala etorri zintzoengana, pekatari-ek billa baiño? Eleizea zintzoakaz bakarrik osotu baleiteke, nun topa guk lekua? Nun salbazitiña guretzat? Ez ete da Eleizea gizon barriek egiten gaituena, santifikatuaz? Ez ete gara aurkituko tentaziñu bardiñagaz azkatasunaren misteriuaren aurrean, gitxi garala-ta, azalean beintzat gaur eztoazela ain ondo ikusita?

Ain gatxak diran Erosopenaren —Erre-denziñuaren— bideetatik ibilteko beti izango dira estroposuen batzuk. Baiña ez eban konparatu Jaunak Eleizea amasa guztia igoten dauan legamiagaz? Arbola aundia egi-ten danean, zeruko egaitiak etorri ta ber-tan abiak ipinten dabezan, azi txikiagaz? .. Goiterra ta lurterra dan Eleizak, gizon guztien salbazitiña kontuan artu bear dau. Argi eta goitar graziaren biarra zabaldu. Bearrezkoa da beragan anima bat eta gorputz bat ikustea: anima santua, garbia, ira-

unkorra; beste aldetik gorputz lurrezkoa, Berak, Eleizak, barritu ta santututen dauan "pekatuzko gorputza", Paulo deunak dakarrenez.

Onek esan nai dau, berak beti gerratu bearko dauala "gizon zarraren kontra". Amaigabeko biar onetan, beti lagunduten deutoz erreformearen Espirituak. Berau izan zan Vatikanoko II Konziliuaren eragilea. Zaz-pigarren gizaldiatik gaur arte Konziliu guztietan errezatzen dan Sevilla-ko Isidoro deunaren otoiñza, Espiritu onen testigua dogu. Olan asten da: "Ona emen, Espiritu Santua, pekatariak, baiñan zure izenean batzar-tuak..."

ZERU ZATI BAT MUNDUAN

Eleizaren goitar fundatzaileak esan eutsen apostolueri eurek izango zirala munduko argi eta lurreko gatzia; be-re Espiritua bialduko eutsenala, eurekatz lurraren amaiararte egoteko. Eleizea da Istoriaren zear promesa onen egitura. Argitu, garbitu ta gaizkatu egiten dau mundua.

Ezta esan gura, Eleizaren misiñuan eta artez esateko konziliuaren biarrean, beti ez-baiezkoak diran Istoriaren egin-tzearen ezstrukturak ikusi bear diranik.

Konziliuari ez jako begiratu bear gaurko prolemak garbituko dabezan aldetik. Au baiño askoz be geiago da, eta "lurraren gaiñea barriztatuten dauan Espiritu Egintzailearen" gaiñetik dago. Lurrari dagokiona bereganatu gabe, sartu, biztu, garbitu, igo, lagundu ta neurriten dauz gizonaren mobimentu ta aktibidade guztiak, ekonomian, sendian —fami-lian—, gizartean, politikan eta kulturatan.

Konziliuaren deia egin eban "Humanae salutis" en buldan, Aita Santuaren lerro onexek irakurten doguz: "Eleizeak daki, Kristoren argiagaz munduko gauzak argituten dauanean, gizoneri euren nortasuna erakusten, euren izateen eta naiñen gorputza geiagotuaz.

Emendik, familia —sendia—, eskola, biarra eta gizartearen alde egin dan dotriña soziala."

Eta jorraillaren 28-ko "Oecumenicum Concilium" apostolutar Kostituziñuan, berba gitxi onetan laburtuten dau Eleizaren misiñua: "Gizonen biotzetan Aita-ren erreñua erein eta zabaldu kanpoan, "erosita" dagozan sendien artean. Ta amaituten dau: "Konziliuari itxarotean eskatuten deusku, ba, bakoitzaren eta gizartearen justiziaren alde indar leialtsuago batean ekiteko, karidadearen onean osoneurri obeakaz bizitzeko, fami-lien, gizarteen eta nazioen artu-emone-tan.

ELEIZEA "KONZILIU ERAN".

"Pentekostes barria ta ederra" deitu eutson Aita Santuak. Ogei ta batgarre-na izango dala pentsata, arin asmaten da "Eleizak, gizaldietan zear, ezagutu dabe-zan askoen artean, erakutsipen inportan-tienetarikoa dana".

Katolikuak bakarrik ikusi al izango dabe egizko dimensiñuan: fedea, itxaro-pa eta karidadearen misteriu au. Olan da guztiz be, munduarentzako graziaren eta argiaren iturria izango da misteriu au. Bildurra eta itxaropenaren denpora oneetan Espiritu Santuaren ixurtze bar-ri bat.

Zenakuluan apostoluak preparatu ziran, Jaunaren esana egiñaz, Pentekostes egunerako; Eleizea, ementxe, Espirituz jaio zan, baiña Ama Birjiñearengan errealdadetu zan. Modu oneetan gertuko da Kristoren Eleiza guztia, apaiz eta kris-

tiñauak, goitar presentziaren egun aundirako.

Kristoren Ordezkoak, preparaziñu auxe eskatuten deusku bein da barriro. Auxe da gorengoko ordua, "azkenekoa", barriena, Liburu Santuetako berbetean.

Egundo eztau izan beste Konziliu batek onenbesteko preparaziñu ain zaindu eta luzea. Olan ta be, Aita Santuak ondo erakusten deusku bere katoliku siñis-mena: "Biar guztiak baiño, asko be gei-ago balio dau kristiñuaren erregu gartsu ta sarri egiñak." Au da, danen gaiñetik, Aita Santuak guztiori eskatutakoa.

Eleiza guztiak entzun dagiela Kristo-ren Ordezkoaren dei larria, batzarraren aurretik egiñdako kostituziñuetan asko-tan eskatuten deuskuna.

"Kristiñau bakoitzari ta kristiñau erri guztieri eskatuten deusku Jaungoiko Alguztidunari, sarritan eta sutsu, otoiñz egiteko Konziliuaren alde... Otoiñz au izan daitela fede bizi batek argitua; ta kris-tiñau penitentiak lagundu dagiola, ar-tezago igo ta efikazi geiago eukiteko; kristiñau bizitz obeago bat eroaten ale-gindu zaitezela, orrek gertuko zaitue kon-ziliuaren ondore eta legeak beteteko-ta".

Eta dei au oraindiño artezagoa ta larriagoa izateko asmoan, ipinten dauz bere aurrean, apaiz eta prailleak —Jaun-goiko eta gizonen bitartekoak— Kristori emonda dagozan monjak, graziari eske-rrak Espiritu Santuaren Etxeak diran kristiñauak, samieñekaz euren kurtzeeri josita dagozan gaixoak, eta txikitunak emoten deutoz graziagaz jantziña dago-zan umetxoak.

Dei larri onetan eztagoz aztuta Erromatik aldentuta hizi diran kristi-ñauak, eurek be Jaunaren maia bete gu-ra dabe-ta: "Artalde bat bakarrik izan daitela, Artzai bakarragaz."

Agustin ñoneagandik artuta, au dakarsku Pedro donearen urrengokoak: "Nai ta ez gure anaiak dira; "Aita Gu-rea" esaten daben artean beti izango di-ra." Beste dokumentu baten Aita San-tuak "borondate oneko ta espiritu arte-dun gizonengana" jo eban; ez ete dabe onexek be Eleizaren animea osotuten?


Errezu askoren artean, aparteko gura-riagaz agertuten deusku au: errosariu, agurtza santua. Bost dokumentuetan emoten deusku kontseju au: "Kristiñau erri-arentzat —Aita Santuaren berba dira— otoiñzik errez eta entendiñagarriena da, Aita Santuen bedeinkaziñuekatz larguro aberastua."

Gura-gura dau Aita Santuak agurtza santua izan daitela animen sokondoko barru-barrutik bigun igoko dauan erre-gua. Apaizentzako Meza ta Brebiariuaren ostean, leku bat izan bear dau; kristi-ñauentzat sakramentuaren ondoan.

Errezu publikuaren maillara igo dau agurtza santuak, Eleizaren premiñen eta nazifiñu ta mundu guztiko beartasunen aurrean.

Kristoren Ordezkoak, Konziliuaren or-du onetan, bere burua, Eleizako klerua-gaz koroiatua sendidu gura dau. Eta es-katuten deutoz beragaz batizateko, Kon-ziliuaren alde Brebiariua errezatukeran. Eleizearen otoiñz ofiziala ta publikua da Brebiariu erredua, "Eleiza katolikuaren arnasea", eta mezadunak egunero "Jaun-goikoaren aintzarako" errezatuten daben, edertasun aparteko goitar clerkia. Go-xua Aita Santuaren biotzarako —berak aitortuten dau— munduko kleru guztia olan alkartuta ikustea.

Eta duda barik, Aita Santuaren pentsa-mentuan dago Ama Birjiñaren Ofiziu-a errezzatean, Konziliuaren alde ekiten



"Laga eiozue berba egin daian"

Azkenengo aldi onetan, aldakuntza aundiak ikusten doguz gizadiaren bizitzako agerkeria guztietan. Gizona ez, baiña gizonaren pensakera eta jokaerak moldura barriak artzen doaz. Eta gizonaren barruan jazoten dana, mundu onetako soziedade guztietan agiritzen da.

Eleizak be, derrior sentitu bear gaurko gizadiak sentitzen daben barruko irakile au. Eleiza, ain zerutarra, lurrean bizi da, emengo bizitzak daroan gorabera askorekin alkarartuta. Gizona legez, Eleiza beti dator barrizatzen, egiten, baiña, bear bada, batez be gaur.

Aspaldilxotik eta onera, berba barri bat gagoz entzuten: "laico" (guk "sekularra" esango dogu). Sekular izena "clero" ez dirdnak artzeko aukeratu da. Ba-egoan len be Eleizan aldi au (Kristok ipinitakoa da izan be-ta), baiña beste zentzukera bat emoten jakon batez be: "Eleiza irakaslea" eta "Eleiza ikaslea". Eta protestantismu azaldu ostean, zainduagoa gelditu zan ideia au, erejiak ekarren "ertijiñuko demokrazia"-ri eusteko.

Alan da be, joan dan gizadiaren erdi ingurutik, sekularren jeikitze itxaropengarri bat asi da zuzperten. Geroago eta argiago sentitzen da egi zar au: danok gara Eleiza. Orain, sekular danak dakie, Eleizaren semeak ez dirala bakarrik "artzeko", eta bai "emoteko" be, ez bakarrik "entzuteko", bai "egiteko" eta "esateko" be. Gaurko kristauak ondo daki ez dala naiko "kristau irauntea", baizik "kristau aitorrera" bear dala zabaldu barren guztietara; kristauak parte artu bear daua Eleizaren bizitz, otoitz, ardura eta poz orduetan, Eleiza dalako.

Izan be, ezin lei sekularren nortasuna susmatu, Eleizarenakin batera ikusten ez bada. Jaungoikoak naita, Eleiza da salbaziaren "tokia", Kristok atondutakoa. "Eleiza" berbak "bildu" edo "batzarra" esan nai dau; Kristoren bidez salbatutakoen alkar-batasuna, soziedadea. Onela, oso-osorik agertzen jaku Eleiza: ikusten dana eta ez dana, lurreko eta zeruko bizitza, apaiz eta sekular, danak gorputz bat egiten legez Kristo buru dala. Benetan, lenengoz, batasuna ikusien dogu Eleizaren muñean: batasuna Kristogan eta batasuna otoitz eta bizitz batean.

Eleiza ba, "salbaluen komunitadea" eta "salbaziorako derriorrezko bidea" da. Bigarren alde onetan sortuten da sekular eta apaizen nortasun desbardiña. Alde biak zaindu bear dira Eleiza ondo ulertu bear bada: Kristoren jarraitzaileen soziedadea (salbazioko grazietan danak parte dabela), eta jarraitzaile orreotariko batzuek, danen salbaziorako, Kristok lagatako almen bereziekin ornituta.

Alan da guztiz be, Eleiza bat da, lagundi bat. Eta bertako bakoitzak Eleiza osoa daroa beregan, Kristoren maitasuna beregan dagoalako. Kristau bakoitza "salbatua" eta "salbatzaillea" da. Eleiztar bakoitza "artzeilla" eta "emontzaille" da animetako arazoan. Kristauak, bataioa artu dauanez, Kristo osoa daroa barruan, Eleiza osoa. Eleizan, aldeak baiño be aurretik, Kristorekingo eta Eleizarekingo kristauen batasuna igartzen da.

Kristau danak, eta batez be sekularrak eurak dira, ez bakarrik Eleizakoak dirala, baiña be Eleiza dirala sentitu bear dabenak, au da, eurak dirala Kristoren jarraitzaileen batasuna, Aita santu eta Gotzain jaunen ardurapean bilduta. (Pio XII).

Egi eder oneek poztu egiten gaitue; poztu eta beartu, baiña batez be, beartu gaurko egun aundi oneetan.

Bidezkoa da (eta ordua zar) sekularren naustutze au Eleizan. Giro obeagoen ezaugarritzat biztu dau nunbaiten Espiritu Doneak arnas barri au.

Konziliuak ondo gogoan artu dau, eta artuko be, Eleizako kimu zora-garri au.

"Laga eiozue berba egin daian" —esan eban Pio XII-k gaurko kristau erriari begiratuta.

Ba-dagoz kristauon artean, gauzak txarto doazela diñuenak. Ba-dagoz Eleizaren gaurko itxura erakoa ez deritzaioenak; ba-dagoz Eleiza basate askotan nastaua dagoala diñuenak. Gitxi gorabera, danok daukagu kezkaen bat Eleizaren kontra.

Gauzak olan ikusi eta zer? Ba-dagoz ezin dabela egin ezer diñuenak, eta ezin dala ezer egin esaten dagoazanak be. Orain maitasunez gogoratuten dogun gure Aita Juan XXIII-ek be ba-eukan gauzak obetoago ikusteko gogoia. Ez egon dana zuzen bereztat be. Baiña Eleizari asterketa sakan bat egin ondoren, auxe esan eban bere barruan: "eta zer egin nei nik? Zer egin bear dot nik?" Eta Konziliua zabaldu eban.

"Zer egin nei nik?" Bearrezkoa da begiak zur eukitea eta akatzak nabaritzea, baiña osatuteko asmoan.

Konziliu aldiaren gagoz. Bi edo iru milla Gotzain batuko dira barriro be "Vatikano"-an, Paulo VI-garren ondoan, euren partea konziliuari eskeintzen. Eta aintxe, alkar maitasun eta errespetuan (danak dira Espiritu Santuaren dei eta abots), zeruko Aitarek guraria entzungo dabe. Eleiza astarketa zintzo baten sartu da, kristau bizitz barri bat biztuteko.

Eta besteok zer? Juan XXIII-ek esan euskun ondo asko igazko aprillaren 29-an: "Konziliu ekumenikuaren aurre onek auxe eskatzen deusku: alegin aundiago bat gizon bakoitzarekin ta soziedadearekingo justizian; kemen zabalago bat karidadean; norbera eskeintze alaitsuago bat danen onerako, geitu daian, gizadi osoaren osasunarako, zuzen-

DANOK KONZILIUAN

tasun bereziago bat familiko, soziedadeko eta nazioen arteko artu-emonetan... Animen barruko barriztatzea egizko berpizte kristau batean. Au ez badago konziliuak ez dau emengo fruturik".

Bizitz barrizte onek gudan egin bear dau. Geure eta gure inguruko bizitz molduari kristau eraturten ez badoguz, Eleiza lengoa izango da.

Ez gara auzokoak "Vatikano"-n. Gu bagerik ez da egingo konziliua. Guri begiratuta bildu da Eleizaren batzar

nagusi au, gugaitik, eta bete be gudan bete bear dau. Eleiza da konziliuan dagoana, argiago esateko, "gu", Kristoren Gorputz egiten dogun kristau danok.

Eta gorputz bateko zatiak legez, erri bateko lagun guztiak legez, danok gagoz Eleizaren zeregiñetan ekitera deitu eta beartuak, bai bere legea betetera, bai gu geu bere eskuetan ipintzera.

Konziliua ez da notizi bat; ez da ikusgarri bat bakarrik: Konziliua gauza serio da, danok beartuten gaituana. "Vaticano II" au ez da gaur bai eta biar ez dan barri bat; Eleizaren batzar nagusi onek azia izan nai dau: gure da azi orreri bizitza eta gorputza emotea.

OBISPUEK GUKIN DAGOZ

Interesgarria izango litzake jakitea zer pentzaten daben gure erriak obispuengan. Sifisbakoak obispu bat zer dan ez jakitea elitzake izango arritzekoa; baiña kristiñau batek ez jakitea...

Erantzun ikusgarriak eukiko geunkezala uste dot. Erantzun ederrak eta amodiz betetakoak be millaka eta millaka izango gendukez. Baiña, zoritxarrez, zenbat erantzun ezkel eta ganorabako: jantzien kolorean, jestoetan, euren bakartasunean, eta beste onelako inportantziabako gauzetan jarten dabezan erantzunak.

Obispuen eta kardenalengan zeozer esateko ez naz joango teolojietako liburuetera, ez; munduan, euren akziñuetan eta relaziñuetan ikusiko doguz.

Obispuak euren eginkizunetan ikusteko Erromako Batzar Nagu-sira joatea uste dot izango dala onena.

An ikusten doguz 2.800 obispu. Munduko alderdi guztietakoak dira. Askok pentzaten dabe gure abispuak eztirala akordetan erriko gizonengan eta beti euren etxeetan sartuta dagozala.

Lenengo jakin bear doguna da, Kristo berberak ipiñi dabezala obispu oneek gu danok zaintzeko eta zeruko bidea erakusteko.

Baiña erriko gizonetatik urrun ete dabiz ba? Ez. Joan zaitez Batikanoko plaza erdira eta ikusi egizu zer pasaten dan. An dabiz jende guztiari ixuriten aspertu barik ordu askotan bedeinkaziñuak, euren letra, errezo eta parre goxoa. Eztira bakarrik goiko gizonak, beeratzen be ba-dakie.

Egun batean obispu bat meza laguntzen ikusi genduan. Ez kapritxo bat gaitik, beste gizon bati mesede egiteagaitik baiño. Eta zenbat onelako ejenplu eder ikusi doguz Batikanoko plazan.

Ez. Obispuak ezтира lañoetan bizi. Siri kardenala, obreru baten semea da; Ottaviani, panaderu baten semea; Gracias kardenala, Karachi-ko barrio errukarrienean jaiotakoa; Kominek obispuak, egunero egunero itxoiten eutson Silesia-ko mina arriskuduenetatik etorren aitari. Suenens kardenala, alemanak kartzelatu eben azkenengo gerra ontan eta afusilatu nai eben, baiña, Jaungoikoari eskerrak, ez eben lortu deabrukeri ori.

Esango neuke, guk kristiñauok eztoguzala esagutzen ondo gure obispuak. Erromako batzar ortan Espiritu Santua sentigarrian ikusten izan da: angu batasuna, alkar-amodioa eta poza! Pentekostesko egunaren itxuera eukan.

Gertakizun oneek erakusten deuskue argiz, obispuak eta kardenalak ondo konprenditzen dabezala gizonen problemak eta eztabiala laiñoetako bideetan, lurrekoan baiño.

Ikusi egin bear doguz nortzuk diran eta gero ikasi euren ejenplu ederrak.

Ogeigarrengo mendean gauza ikaragarri asko ikusi doguz benetan: atomikazko eta idrojenesko bonbak, erradiua, telebisifua, eta beikulu guztien obetasuna eta arintasuna. Baiña mende eder ontan bizi garan gizonak ezin geinke ixildu Espiritu Santuak eta Eleizak egiten dabezan aurrapenak be. Baltz eta ubel jantzitako gizon asko ikusten genduzan antxiña ezala Batikanoko plaza naguzian. Eleizako artzaiak dira. Eleizari bizitasun bat emon naiez-ta batu dira. Zenbat? Askok. Mundu guztikoak.

Eta pillo onetan gusto askoko obispu eta kardenalak arkitzen dira. Wright, txistosua eta broma zalea; Leonard obispuak, eskritore mistiko txinpart beroduna; baita alkartu dira Amisah obispuak, elizako organua joten dabena eta Ogez obispuak, biolina guztiz ondo joten dabena bere asti libreetan; edo baita Mablatoana Afrikako musikalaria eta Ekander obispuak biargin purrukatua gabian bost orduko loa bakarrik artzen dabena.

Etxe baten biziko dira Montini Kardenala, gaur Aita Santu, irakurlari ase ezifekoa bere Milan-eko diozesira 85 kutxa liburuz beteta eroan ebazana, eta Rey obispuak, gure Seringueiroko Amaren eleiza eta ospital bat baita lau eskola be bere eskuegaz altza dabezana.

Onen onduan arkituko da, ganera, Mango obispuak, lu-rean zeruko gauzak ikusten dauzana.

Jaungoikoaren deia urteak aurrera joiakuezala entzun ebenak be makiñabat izan dira. Amisah obispuak fubolisteak zan abade egin baiño aurretik. Gastellano obispuak injenierua zan eta Australiako Gilroy kardenala telegrafista bat.

Komunismuaren atzamerpean bizi eta sufritzen dabena be ezтира gitxi izan: Txinakoak, Hungriakoak, Yugoeslaviakoak eta beste toki askotakoak.

Au dala-ta poztu egin bear gara kristiñauok. Ainbeste kardenal, obispo santu eta ainbesteko klasekoak, astindukada eder bat emongo deutse Eleizari. Ze ederra dan ainbeste errietako eta danak fede batgez lotuta ikustea! Eleiza, len indar askokoa izan arren, orain indar aundiagoak artuko dauz. Gaurko problema modernuei kristiñau-soluziñu bat emongo deutse.

Guk, Eleiza eder ontan parte garanok, poztu gaitezen zeruko poztasunez: ba-dator munduarentzako Pentekostes eguna. Alleluia!

| | |
|-------|---|
| 2.778 | Eliz-Guraso konziliulari batu dira Vatikanoko II-garrenean; |
| 87 | kardinalak eta patriarkak, |
| 97 | erlejijsuen nagusiak, |
| 975 | gotzain titularrak, |
| 1.619 | gotzain diozesi baten kargu daukenak. |
| | Oneetatik |
| 939 | erlijiosuak dira; |
| 1.839 | abadeak. |
| 332 | Iparameriketatik etorri dira; |
| 601 | Egoameriketatik; |
| 250 | Afrika baltzetik; |
| 96 | Arabia aldetik; |
| 849 | Sartaldeko Europatik; |
| 174 | Komunisten errietatik; |
| 256 | Asia aldetik; |
| 70 | Ozeaniatik. |



Go-
tzain
ar-
tean

Kristauen batasuna

Guztiko batasunik ez da etorriko. Aurre aurrean dagon egia auxe; gizonezko begiekaz begiratu ezkerro beñipein. Erabili dogun gorrotozko bidea luzea ta latza izan da benetan. Baten baiño geiagotan burruka egin dogu, sarritan zauritu gara ta beti ibilli gara bata-besteen akatsak argitaratzen. Gauza penagarria, baiña egi galanta. Ta errua alde bietatik dagola esan bear. Guk katolikuok naiko erru izan gendun. Fozio ta Zerulario izan zirean zisma au kristiñautartean sortu ebenak. Naiz guk txartzat euki gizon ospetsuak zirean; batez be Fozio. Orienten orduan izandako gizonik jakintsuena; zurra ta politiku azkarra bera; ta, zergatik esan ez, biotz onekoa be bai. Zerulario zan makurragoa norberekeria ugari arek. Baiña geuk be maillu otsez eta eskomunioz gura genduzan menperatu ta orretzek galdu!

Au ikusita gaurko katolikuak ikaskizun eder bat ikasi dogu: Maitasun bearra. Kristok erakutsitako maitasuna

Animako gauzak gaur naiko oinperatuta daukoguz. Geienak materialismuan samaraño sartu gara ta kristautasunetik bizi bearrean aberastasunetik bizi gara. Benetako bizitza, animako bizitza, aaztuta daukogu. Fabriketara, baserri lanetara, frontoi ta futbol zelaietara Kristo eroan bearra dago.

Gure artzai Obispuak ondo baiño obeto dakiezan gauzak oneexek. Orregaitik, gaurko Konziliua momentu paketsuetan batu dala esan geinke. Eleiz barruan ez dagoz txarkerizko prolema aundirik. Ainañña bai, Konziliua batuten bazan ereji edo zisma baten señalearan. Baiña orain ez. Konziliua batu bada indar barri baten bearrizena ikusten dalako izan da. Egon be, Kristo gaurko mundura eroateko bearrizena aundia dago.

Gaurko Kontziliuak Eleizaren betiko gaztetasuna azaldu gura deusku. Eleiza beti da gazte, eder ta indartsu. Ixtori guztian zear beti zabaldu dau bere itzal goxoa. Baiña gaurko egunetan gura dau egon gazte, indatsu ta aukeratua. Aita Santuen esanak, gaur beste, egundo ez dabe mundua argitu ta zuzendu.

Iñoiz ezagutu ez dogun kontziliua oraingoa. Egokera maitekor bat artuko dauala aurrean dago. Kastigatu egin bearrean, aita on batek legez, kontsejuak emongo deuskuz. Iñondik ez da ikusten dojma barrirenik. Onetako ez dago denbora egokirik.

KONTZILIUKO PROLEMAK:



erabili bear dogu nun-nai. Bai ederto erakutsi euskula au kontziliua batu eban XXIII'garren Joanek. Maitasun utsa zan. Orregaitik irabazi ebazan munduko biotz guztiak ta orregaitik sentidu gendun ainbeste il zanean. Pakeagaz ta maitasunagaz dana leiteke, indarrean ta gogorrean oso gitxi. Ikasi dagigun betiko.

Dana dala Kontziliuan batasuna lortuteko alegiñak egingo dira. Bakea ta alkartasuna izateko bideak landuko dira.

Izan leiteke oraindik batasunezko mirari au Jaungoikoagandik ez lortutzea. Baiña gauza bat daukogu benetan ederra ta indar aundikoa: Otoitza. "Eskatu ta emongo iatsue", esan euskun Kristok. Ta alaxe da. Gure eskuetan dago, ba, ainbeste gura dogun kristiñau guztien alkartasuna. Gure indarrak argalak badira, Jaungoikoa alguztiduna da. Batasuna etorri dedin, otoitz egin daiogun dana lortu leikean Jaunari.

Gaurko munduan agertu diran barriztasun guztiak beraganatuko dauz. Lenengoko kristiñauak erromako kulturagaz egiñ ebena orixe egingo dau Eleizak gaurko aurrerapenagaz: Ona dan guztia artu ta txarra aldendu. Aurre aurrean ipiñiko deusku gure materialismua, ta gure diru zaletasun aundiak. Baiña alde txarra erakutsiaz bakarrik ez da geldituko. Txalotu be egingo gaitu, gaurko gure zibilizazio ederra txalogarria baida.

Batez be auxe da erakutsiko deuskuna: zelan eroan kristautasuna gaurko mundura, nola emon kristau anima bat gaurko munduari.

Orregaitik aurrerantzean Eleiza pobre biziko da ta batez be bata besteen maitasuna nun-nai agertzen aleginduko da.

Gaurko mundua mobiduteko ez dago alkar maitasuna lakorik. Azkenean gaurko komunistek be erromatarrak esan ebena esango dabe: Begira zelan alkar maite diran; kristau egin galtezan geu be orrela ondo bizitzen da-ta.

Gaurko mundua

"Konziliu Ekumeniku preparaziñuko iru urte onetan, norteamerikarrak milloika, euren artean asko ta asko katoliku ez diranak, zurt ta biotzez segidu dabez konziliu guztiz onuragarri au atondutzeko sortu ziranen komisiñuen biarrak. Guban diran prolema askori, berba argi ta eragikorrez, erabaki egiazkoa emongo jakeela dogu itxaroten, eta batez be, bake ta erri arteko ulertzearen alde jokatuko dala.

Ar begi, bada, Aita Santu, nire ta nire andrearen zorion beroenak. Itzal barrukorrez, Berorren seme guztiz zintzoak".

Adenauer

"Jakiñaren ganean dago gure Aberria zelako oore ta ze ardura jakun konziliua Erroman ospatzean. Eta italiarrak guztiak dira, fede ta nabarpenez, Batzar onetara begira. Lurreko erri guztiak bertan batu diralarik."

"Itxaropen bizi dago doixtar erri osoa konziliu Vatikano II-garrengoari begira. Doixtar personalidadeekaz sarri asko izan dotazan alkarberbetatan, beti izan dogu lenen maillan batasun ekumeniku gaia. Nire erriko katoliku guztien artean artuko dot nik neuk be parte gure fedearen bizitasun eta indarraren agerkune onetan".

Segni

mundua konziliuari begira

"Il Secolo d'Italia"

"Ixil-Eleizako gotzain batzuen etortzeak ara zer agerkigun argi ta garbi: Stalinnek barre egiten eutsen erlijioa oraindik-orain ondo bizirik dagola erri aretan. Joan diran ogei gizaldietan, betikotasun promesa norberaren alde eukiteak emoten dauan segurantzi nasaiaz igaro ditu Eleizak ekaitz amorratuena. Zisma, Erreforma, Prantziko Erreboluziñu, eta positibismua gain bizi izan da beti. Beraz zergaitik marsismuaren aurrean ikaraz jarri bearko?".

"Vatikano II-garrengoagaz asi da, noski, egiazko aldi barri bat Eleizarentzat izpirituaren kondairan. Guztiek dakie ospe moralaren gallurrean dagoala egunean Eleiza, eta, ziurki, Konziliu onetan artuko dau bere ospekundea."

«Le Monde»

«Times»

"Batzar augandik ezta, batez be, dogma barrien baten proklamaziñurik itxaron bear. Beste onako au baiño, alegia: kristiñau dotriña argitua izan dedilla gizonari laguntzeko bere eguneroko arazoeri aurre-egiten bai familian, edo biarrean, edo baita gure denporako problema aundietan: guda, bakea, alkar-bizitzako problema, erri beartsuerekiko laguntza."

